ESLEIPENA, Osakidetzarena, La Peña, San Adrian eta beste Osasun Zentroetarako tresnak kontratatzeari buruzko espedientearena -Bilbaoko Eskualdea-. 1898

ESLEIPENA, Osakidetzarena, Osasun Zentroetarako Ekipamendu Klinikoa kontratatzeari buruzko espedientearena -Bilbaoko Eskualdea-. 1899

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetzarena, Basurtuko Ospitaleko Digestio-Aparatua Zerbitzuko Endoskopia Unitaterako materiala kontratatzeko. 1900

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

ERABAKIA, 1999ko urtarrilaren 13koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, 3/1999 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bidez kontratu bat adjudikatuko da, mikroskopioak erosteko, Leioako Zientzi Fakultaterako. 1902

ERABAKIA, 1999ko urtarrilaren 14koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, 5/1999 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bidez kontratu bat adjudikatuko da, Hozteko Ekipamendua erosteko, Gasteizko Farmatzia Fakultaterako. 1903

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud del expediente relativo a la contratación del «instrumental para el C.S. La Peña, S. Adrian y otros». 1898

ADJUDICACIÓN del expediente relativo a la contratación del «Equipamiento Clínico para Centros de Salud» -Comarca Bilbao-. 1899

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para la contratación de «Material diverso para la Unidad de Endoscopia del Servicio Aparato Digestivo del Hospital de Basurto». 1900

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

RESOLUCIÓN de 13 de enero de 1999, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia Concurso Público n.º 3/1999 para la Adjudicación del contrato de suministro de microscopios para la Facultad de Ciencias de Leioa. 1902

RESOLUCIÓN de 14 de enero de 1999, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia Concurso Público n.º 5/1999 para la Adjudicación del contrato de suministro de Equipamiento Frigorífico para la Facultad de Farmacia de Vitoria-Gasteiz. 1903

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-531

AGINDUA, 1998ko abenduaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, pertsona helduen oinarrizko prestakuntzako ikasleen ebaluazioari buruzkoa, zuzeneko eta urrutiko hezkuntzan.

1998ko maiatzaren 29an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona helduen oinarrizko prestakuntzako berariazko curriculuma ezarri zuen, eta irakaskuntza-ikaskuntzaren ebaluazioa jarraia, integratua, banan-banakoa eta partaidetza bultzatzen duena izango dela ezartzen du. Era berean, pertsona helduen hezkuntzako ebaluazioaren berezko ezaugarriak aipatzen ditu.

Apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak (ekainaren 9ko EHAA), ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, L.O.D.E.ren 6. atalarekin bat etorriz, eskubide

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-531

ORDEN de 11 de diciembre de 1998, del Consejero de Educación Universidades e Investigación, sobre la evaluación del alumnado de Formación Básica para las personas adultas en las modalidades de educación presencial y a distancia.

La Orden de 29 de mayo de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece el currículo específico de formación básica para las personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vasco determina que la evaluación del proceso de enseñanza-aprendizaje será continua, integrada, individualizada y participativa. Así mismo señala los caracteres propios de la evaluación en la Educación de Personas Adultas.

El Decreto 160/1994 de 19 de abril (BOPV de 9 de junio) de derechos y deberes de alumnos y alumnas, de acuerdo con el artículo 6 de la L.O.D.E., exige que es-

hori ebaluazio-irizpide eta gutxieneko helburuak argitaratuz bermatzea eskatzen du. Horrek, ebaluazio-prozesuari buruzko datu garrantzitsu guztiei buruzko informazio etengabea sortuko du, erreklamazio-prozedura ezartzeari mugatu barik.

Bere aldetik, 1992ko urriaren 30eko Aginduak (azaroaren 11ko EAO), L.O.G.S.E.k arautzen dituen araubide orokorreko irakaskuntzen ebaluazio-txostenen oinarrizko elementuak ezartzen ditu, bai eta ikasleen mugikortasuna bermatzeko behar diren eta ebaluazio-prozesutik datozen baldintza formalak ere.

Hala ere, pertsona helduen oinarrizko prestakuntzako irakaskuntzen antolaketa eta lehen mailako hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako arlo eta gaietako antolaketa desberdinak dira, azkenean ematen den titulazioa berdina izan arren, eta ikasleen ebaluazioa irakaskuntza horietara egokitzea komeni da.

Irakaskuntza horietan hasierako ebaluazioak daukan garrantzia azpimarratu behar da. Pertsona heldu bakoitzari derrigorrez egin behar zaio, eta aldez aurretik zeuzkan ezagutzak eta eskarmentua, eta itxaropen eta interesak sartuko dira. Horiek guztiek bere prestakuntza zehazten lagunduko dute.

Era berean, Agindu honen helburua ez da irakaskuntza-prozesuak ebaluazioa, irakasleen lana eta curriculum-proiektua arautzea. Hala ere, saio bakoitzeko derrigorrezko emaitzen azterketatik garrantzizko datu eta ondorioak ateratzea agintzen du; datu eta ondorio horiek kontuan hartu beharko dira ikastetxearen ebaluazioan, azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak aurreikusten duen moduan.

Agindu honek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari 213/1994 Dekretuaren Azken Xedapenetatik Lehenak ematen dizkion eskumenak erabiliz, Dekretu horren 18. atalean jasotakoa betetzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona helduen oinarrizko prestakuntzako ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa arautzen du.

Hori guztia dela-eta, honakoa

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## OINARRI OROKORRAK

*1. atala.*– Ikasleen ebaluazioaren helburuak.

1.– Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioaren helburuak dira euren hezkuntza-probetxua baloratzea, orientazio pertsonala, akademikoa eta profesionala egi-

te derecho se garantice mediante la publicidad de criterios de evaluación y objetivos mínimos, dando lugar a una información permanente sobre todos los datos relevantes en el proceso de evaluación, sin limitarse al establecimiento de un procedimiento de reclamaciones.

Por su parte, la Orden 30 de octubre de 1992 (B.O.E. de 11 de noviembre) establece los elementos básicos de los informes de evaluación de las Enseñanzas de Régimen General regulados por la L.O.G.S.E. así como los requisitos formales derivados del proceso de evaluación que son precisos para garantizar la movilidad del alumnado.

No obstante lo anterior, y puesto que la organización de las enseñanzas de formación básica para las personas adultas difiere de la organización en áreas y materias de la Educación Primaria y Secundaria Obligatoria, aunque la titulación que se otorga al final de dichas enseñanzas es la misma, conviene adaptar la evaluación del alumnado a dichas enseñanzas.

Es necesario destacar la importancia que tiene en estas enseñanzas la evaluación inicial, que con carácter preceptivo se realizará a cada persona adulta y que comprenderá aspectos relacionados tanto con sus conocimientos y experiencias previas, como con sus expectativas e intereses, la cual permitirá determinar su itinerario formativo.

Asimismo, es preciso señalar que no es objeto de regulación por la presente Orden la evaluación de los procesos de enseñanza, de la práctica docente del profesorado y del Proyecto Curricular. Se prescribe, no obstante que del análisis de resultados preceptivo en cada sesión se extraigan los datos y las consecuencias relevantes que deben ser tomados en consideración para la evaluación del Centro que prevé la Ley Orgánica 9/1995 de 20 de noviembre.

La presente Orden, haciendo uso de las facultades concedidas al Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la Disposición Final 1ª del Decreto 213/1994, da cumplimiento al mandato contenido en el artículo 18 del mismo y regula la evaluación del aprendizaje del alumnado correspondiente a la formación básica para las personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## PRINCIPIOS GENERALES

*Artículo 1.*– Finalidades de la evaluación del alumnado.

1.– Son finalidades de la evaluación del proceso de aprendizaje de los alumnos/as la valoración de su aprovechamiento educativo, la obtención de los datos nece-

teko beharrezko datuak lortzea, eta zailtasunak gertatzen diren momentuan antzematea, horien arrazoiak aurkitzeko eta neurri egokiak hartzeko.

2.– Helburu nagusi horiek ez dituzte alde batera utzen erabilitako metodo eta prozeduren balorazioa, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen balorazioa, eta ikastetxearen barruko eta kanpoko ebaluazioan egingo den curriculum-proiektuaren balorazioa. Azken hori azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 29. atalak eskatzen du. Aipatutako ebaluazio horretan, ikasleen ebaluazioaren emaitzak beti hartuko dira kontuan, bai eta EAEn egiten diren hezkuntza-sistemaren ebaluazioetan ere.

*2. atala.–* Ikasleen ebaluazioaren ezaugarriak.

Ikasleen ebaluazioa honelakoa izango da:

1.– Jarraia: ekintza sistematikoa eta iraunkorra izango da, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan integratua, modulu bakoitza bere arloan eta fasearen testuinguruan baloratuz.

2.– Integratua: derrigorrezko eta aukerako modulu bakoitzaren ikuspegitik eta fase bakoitzaren oinarrizko prestakuntzaren arloen ikuspegitik hartu beharko da kontuan helburu nagusietan definitutako gaitasun orokorrak lortzen diren ala ez.

3.– Banan-banakoa: ikasle bakoitzaren ezaugarri desberdintzaileak kontuan hartuz, eta bere ikaskuntza-prozesuaren alderik garrantzitsuenei buruzko informazioa emanez.

4.– Partaidetza bultzatzen duena: autoebaluazioa eta taldearekiko agertzen diren oharrak kontuan hartuz.

*3. atala.–* Ebaluazioa egiteko erreferentzia-esparrua.

1.– Pertsona helduen oinarrizko prestakuntzaren curriculuma ezartzen duen Aginduaren 11. atalari jarraiki, ikasleen ebaluazioa egiteko, arloetako helburuak eta ikastetxearen Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuan ezarritako ebaluazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona helduen oinarrizko prestakuntzaren berariazko curriculuma ezartzen duen 1998ko maiatzaren 29ko Aginduaren 16. atala betez, curriculum-proiektuak arlo bakoitzeko helburu, eduki eta irizpideen fase bakoitzerako zehaztapena eta banaketa izan behar du.

Proiektu horretan, ikasleak modulu bat egin aurretik beste bat, derrigorrezkoa edo aukerakoa, oinarri modura, gainditu behar dutela ezarri ahal izango du ikastetxeak, egoki baderitzo.

Erabaki horiek, Agindu honetan ezartzen diren mugen barruan, hauetara zabalduko dira gutxienez: ikas-

sarios para su orientación personal, académica y profesional y la detección de las dificultades en el momento en que se produzcan para averiguar sus causas y adoptar inmediatamente las medidas oportunas.

2.– Estas finalidades principales no excluyen las relativas a la valoración de los métodos y procedimientos empleados, a la del proceso de enseñanza y aprendizaje y a la del propio Proyecto Curricular que se producirán en el marco de la evaluación interna y externa del Centro, exigida por el art. 29 de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre. En esta evaluación habrán de ser tenidos en cuenta en todo caso los resultados de la evaluación del alumnado. Igualmente serán tenidos en cuenta en las eventuales evaluaciones del sistema educativo que se realicen en CAPV.

*Artículo 2.–* Características de la evaluación del alumnado.

La evaluación del alumnado será:

1.– Continua, constituyendo una actividad sistemática y permanente, integrada en el proceso de enseñanza y aprendizaje, valorando cada uno de los módulos en el contexto del ámbito y de la fase de la que forman parte.

2.– Integrada, debiendo tenerse en cuenta desde todos y cada uno de los módulos, obligatorios y opcionales, y de los Ámbitos de la formación básica de cada fase, la consecución de las capacidades generales definidas en los Objetivos Generales.

3.– Individualizada, teniendo en cuenta las características diferenciadoras de cada alumno/a, aportándole información sobre los aspectos más relevantes de su proceso de aprendizaje.

4.– Participativa, considerando la propia autoevaluación y las observaciones que se presenten en relación con el grupo.

*Artículo 3.–* Marco de referencia para la evaluación.

1.– De acuerdo con el art. 11 de la Orden por la que se establece el currículo de la formación básica de las personas adultas, la evaluación del alumnado, se llevará a cabo teniendo en cuenta los objetivos de los ámbitos, así como los criterios de evaluación establecidos en el Proyecto Socioeducativo del Centro.

2.– El proyecto curricular, de acuerdo con el art. 16 de la Orden de 29 de mayo de 1998 por la que se establece el currículo específico de formación básica para las personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, debe contener la concreción y distribución para cada una de las fases de los objetivos, contenidos y criterios de evaluación de cada ámbito.

En dicho proyecto el centro podrá establecer, si lo estima oportuno, que para cursar un módulo los/as alumnos/as deberán superar previamente otro, obligatorio u opcional, que le sirva de base.

Estas decisiones, dentro de los límites que se fijan en la presente Orden, se extenderán, al menos, a las es-

leen aurrerapen akademikoari buruzko informazioa lortzeko estrategia eta baliabide egokienetara, ikasleak bere ebaluazioan eta taldearen ebaluazioan parte hartzeko prozeduretara, sustapen-irizpideetara eta saioetako ebaluazio-prozesura bertara.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxea bakoitzeko Curriculum Proiektuari buruzko txostena egin beharko du. Txosten horretan atal bat idatziko du ebaluazioaren planteamenduari buruzko erabakietaz, eta beren-beregi azalduko du atal honetan ezarritakoa betetzeari buruzko iritzia, lehen aipatutako 1998ko maiatzaren 29ko Aginduaren 16. atalean jasotako aldeak kontuan hartuz.

*4. atala.–* Ebaluazioaren arduradunak.

1.– Irakasle-ekipoa modu kolegiatuan arituko da prozesu osoan, eta taldeko ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa egiteko arduraduna izango da, bai eta prozesu horretan hartzen diren erabakien arduraduna ere.

2.– Taldeko irakasle tutoreak koordinatuko du irakasle-ekipoaren jarduera prozesu osoan eta ebaluazio-saio bakoitzean.

II. KAPITULUA
EBALUAZIO PROZESUA

*5. atala.–* Hasierako ebaluazioa.

1.– Ikaslearen hasierako ebaluazioa derrigorrez egingo da HEE ikastetxean prestakuntza-prozesua hasten denean. Horren helburua ikaslearen hasierako egoera ezagutzea da, pertsona heldua modulu eta faserik egokienean jartzeko. Horrela, aurrerapen handiagoak egingo ditu eta bere ezaugarrietarako prestakuntza-biderik egokiena aukeratzen lagunduko zaio.

2.– Ikuspegi horretatik, HEEn ikasten hasi nahi duten pertsona helduekin eduki beharreko kontaktua ez da ezagutza-proba soil batzuk izan behar; beste alde batzuk ere ikusi behar dira, hala nola bere gaitasunak, trebetasunak, motibazioak, interesak eta itxaropenak; hain zuzen ere, elkarrizketen bidez hobeto bil daitezkeen gauzak dira. Hasierako lehen ebaluazio hori beharrezkoa da aldez aurretik prestakuntzaren bat egiaztatzen dutenekin ere, batez ere ez badute prestakuntza hori aspaldi eguneratu.

3.– Hasierako ebaluazioaren ondorioz ikasleak gainditu dituen moduluak bere espedientean adieraziko dira, eta gainditu dituen irakaskuntza arautuak, aurkeztutako egiaztagiriak eta egindako frogen emaitzak kontuan hartuko dira.

Lehen Hezkuntza gaindituta edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko seigarren maila gaindituta daukatenek bigarren faseko moduluak modu automatikoan gaindituko dituzte. Era berean, irakaskuntza arautuan,

trategias y medios que se consideren más adecuados para obtener información sobre el progreso académico del alumnado, a los procedimientos de participación del alumnado en la propia evaluación y en la del grupo, a los criterios de promoción y al propio proceso de evaluación incluido el régimen de sesiones.

3.– La Inspección educativa en el informe que emita sobre el P.C.C. de cada Centro dedicará un apartado a las decisiones sobre el planteamiento de la evaluación, en que se pronunciará expresamente sobre el cumplimiento de lo dispuesto en este artículo, considerando los aspectos señalados en el art. 16 de la Orden de 29 de mayo de 1998, antes mencionada.

*Artículo 4.–* Responsables de la evaluación.

1.– El equipo docente, actuando de manera colegiada a lo largo de todo el proceso, es responsable de la evaluación del aprendizaje de los/as alumnos y alumnas del grupo así como de todas las decisiones que se adopten en el marco de dicho proceso.

2.– La actuación del equipo docente será coordinada por el/la profesor/a tutor/a del grupo, a lo largo de todo el proceso y en cada una de las sesiones de evaluación.

CAPÍTULO II
PROCESO DE EVALUACIÓN

*Artículo 5.–* Evaluación inicial.

1.– La evaluación inicial del/la alumno/a se realizará con carácter preceptivo al inicio del proceso de formación en el centro de E.P.A. y pretende conocer la situación inicial del alumno/a para ubicar a la persona adulta en el módulo y fase más adecuado que le permita alcanzar mayores progresos en su aprendizaje y ayudarle a escoger el itinerario formativo más apropiado a sus características individuales.

2.– Desde esta perspectiva, el contacto con las personas adultas que pretenden iniciar sus estudios en E.P.A. no debe reducirse a unas pruebas de conocimiento conceptuales, sino que deben tener presentes otros aspectos tales como sus habilidades, destrezas, motivaciones, intereses y expectativas, aspectos que pueden recogerse mejor a través de entrevistas. Esta primera evaluación inicial es necesaria incluso, con quienes acrediten una formación anterior, sobre todo, cuando no hayan actualizado su formación desde hace tiempo.

3.– Se consignarán en el Expediente del/la alumno/a los módulos superados como resultado de la evaluación inicial, teniendo en cuenta las enseñanzas regladas aprobadas, las certificaciones presentadas y los resultados de las pruebas realizadas.

Quienes tengan superado la Educación Primaria o aprobado el sexto curso de Educación General Básica tendrán automáticamente aprobados los módulos de la 2ª fase. Asimismo se convalidarán los módulos cuyos

hau da OHO, LH, IEE edo DBHn, gainditutako arlo edo gaiak moduluen edukiekin egokitzen badira, modulu horiek baliozkotu egingo dira. Eskola Graduatu Titulua daukatenek hirugarren faseko azken modulu biak baino ez dituzte egin beharko. Gainera, ikastetxeek modulu bat edo batzuk gainditu direla ezartzeko aukera izango du, modulu horien edukiak, aurkeztutako programa ez-arautuen egiaztagirien arabera edo hasierako ebaluazioaren arabera, ondo gaindituta badaude, euren Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuan ezartzen dituzten baldintzetan.

4.– Pertsona helduek euskarazko irakaskuntzatik salbuesteko eska dezakete, gainerako irakaskuntza arautuen baldintza berberekin.

5.– Irakasle-ekipoak, ebaluazio hori oinarritzat hartuta, egokien deritzen multzoak egingo ditu irailean eta otsailean, pertsona helduak talde eta modulu egokienetan jarriz. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari horren guztiaren berri emango dio, hark onespena eman dezan eta martxan jar dezan.

6.– Hasierako ebaluazioan ikasleren batek hezkuntza premia bereziak dauzkala ikusten bada, ikastetxeak neurri egokiak hartuko ditu horiei erantzuteko eta, behar izanez gero, banako curriculum-egokitzapenak egoteko, 1998ko uztailaren 24ko Aginduan (abuztuaren 31ko EHAA) ezarritako arauak betez. Hori guztia ahalik eta lasterren egingo da, gehienez ere matrikulatu eta hilabetean.

7.– Ebaluazio hori egiteko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuan aurreikusi beharko dira.

*6. atala.–* Etengabeko ebaluazioa.

1.– Ikaskuntza-prozesu osoan, taldearen tutoreak koordinatutako irakasle-ekipoak pertsona helduen etengabeko ebaluazioa egingo du, modulu bakoitzaren denboraren herena modu erregularrean joan bada klasera. Ikasle bakoitzaren prozesua baloratuko da eta egoki jotzen diren neurriak hartuko dira bere ikaskuntzan aurrerapen hobea egin dezan. Hartzen diren erabaki guztiak bilera-aktan idatziko dira.

2.– Ebaluazioa etengabea denez gero, prozesu osoan hartutako oharren eta egindako ekintzen emaitza izango da balorazioa, bai eta ikaslearen autoebaluazioarena ere.

*7. atala.–* Ebaluazio-saioak.

1.– Irakasle-ekipoan taldean klasea ematen duten irakasle guztiak egongo dira eta tutoreak koordinatuko du. Pertsona helduen ikaskuntzaren ebaluazioa egingo du ebaluazio-saioetan, ebaluazio arruntean eta azken ebaluazioan. Lauhilekoan, taldearen irakasle-ekipoak ebaluazio-saio bi egingo ditu gutxienez; horietako bat lauhilekoaren amaieran egingo da.

contenidos correspondan a áreas o materias aprobados en la enseñanza reglada en cualquiera de sus modalidades E.G.B., F.P., R.E.M o E.S.O. Quienes tengan el Título de Graduado Escolar deberán cursar únicamente los dos últimos módulos de la 3ª fase. Además, los centros podrán determinar la superación de uno o varios módulos, cuyos objetivos, de acuerdo a las certificaciones de programas no reglados presentados o a la evaluación inicial, estén suficientemente superados, en las condiciones que establezcan en sus Proyecto Socioeducativo.

4.– Las personas adultas podrán solicitar exención de las enseñanzas de euskera en las mismas condiciones que en el resto de las enseñanzas regladas.

5.– El equipo docente en septiembre y febrero sobre la base de esta evaluación realizará los agrupamientos que considere más adecuados, ubicando a las personas adultas en los grupos y módulos que considere más oportunos, comunicándoselo a la Delegación Territorial de Educación para su aprobación y puesta en marcha.

6.– Si en la evaluación inicial se detectara la existencia de algún/a alumno/a con necesidades educativas especiales, el Centro tomará las medidas más adecuadas para dar respuesta a las mismas y en su caso, elaborar las adaptaciones curriculares individuales que precisen, de acuerdo a las normas establecidas en la Orden de 24 de julio de 1998 (BOPV de 31 de agosto) y en el menor plazo de tiempo posible, que no será superior a un mes desde la matriculación.

7.– Los instrumentos que se consideren necesarios para llevar a cabo esta evaluación deberán estar previstos en el Proyecto Socioeducativo.

*Artículo 6.–* Evaluación continua.

1.– A lo largo de todo el proceso de aprendizaje el equipo docente coordinado por el/la tutor/a del grupo realizará una evaluación continua del aprendizaje de las personas adultas, que hayan tenido una asistencia regular a clase de al menos 1/3 del tiempo del módulo correspondiente. Se valorará el proceso de cada alumno/a y se adoptarán las medidas que se consideren oportunas para un mejor progreso en su aprendizaje consignándose en el acta de la sesión las decisiones que hayan podido tomarse.

2.– Dado el carácter continuo de la evaluación, la valoración será el resultado de las observaciones y actividades de evaluación efectuadas a lo largo del proceso así como la autoevaluación del propio alumno/a.

*Artículo 7.–* Sesiones de evaluación.

1.– El equipo docente, formado por todos/as los/las profesores/as que impartan enseñanzas en el grupo, coordinado por el/la tutor/a, realizará la evaluación del aprendizaje de las personas adultas en sesiones de evaluación, tanto ordinaria como final. A lo largo del cuatrimestre el equipo docente de grupo realizará al menos dos sesiones de evaluación, una de ellas al final del mismo.

2.– Ebaluazio-saioan, irakasle-ekipoak ikasle bakoitzaren arlo hauek, beste batzuen artean, aztertuko ditu:

– Etapako eta Arloetako helburu nagusietan jasotako gaitasunak eskuratze-mailari buruzko iritzia.

– Arloetako edukien eskuratze-mailari buruzko iritzia.

– Hezkuntza-neurri gehigarriak aplikatzea, behar izanez gero.

3.– Era berean, taldearen emaitza globalak, egoera eta arazoak aztertuko dira, eta azken horiek konpontzeko neurri egokiak erabiliko dira. Azterketa horiek kontuan hartuko dira ikastetxeen partehartzeari, ebaluazioari eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 29. atala betetzeko egin behar den ikastetxearen barruko eta kanpoko ebaluazioan.

4.– Tutoreak saio bakoitzeko akta idatziko du. Bertan agertuko dira arauzko egoerak (leku-egunak, bertaratu direnak eta ez direnak) eta lortutako akordioak. Gainera, interesatuak hala eskatzen badu, akordioetan izan diren kontrako iritziak agertu beharko dira. Akta horiek ikastetxean egongo dira, tutoreak gordeko ditu eta ikastetxeko eta Hezkuntza Ikuskaritzako gobernu-organoen eskura egongo dira.

5.– Antolamendu eta Jarduera Araudian (AJA) eta Barne Araudian (BA), ikasleek ebaluazio-saioetan parte hartzeko modua eta horiek bertan dauden artean eztabaidatuko diren gaiak zehaztuko dute ikastetxeek. Gai horiek ez dira inoiz egoera pertsonalei buruzkoak izango.

*8. atala.*– Moduluen azken ebaluazioa.

1.– I. fasean, pertsona helduak faseko helburuak lortu dituenean, hurrengo fasera joateko kalifikazio osoa jasoko du, 9.1. atalean ezarritakoa betez.

2.– Lauhileko bakoitzaren amaieran, II. eta III. faseetan, ikasleak egin dituen derrigorrezko eta aukerako moduluen ebaluazioa egingo da, eta kalifikazio bat emango zaie, 9.2. eta 9.3. ataletan jasotakoaren arabera.

3.– Ebaluazio-saioetan, ikasle bat arlo bateko moduluetatik beste batera pasatuko den edo bertan jarraituko duen, eta egokitzat jotzen diren hezkuntza-indargarriko neurriak erabakiko ditu irakasle-ekipoak, Agindu honen 12. atalean ezarritakoaren arabera.

4.– Fasearen amaierako ebaluazio-saioaren ondoren, tutoreak, ikasleari orientatzaileagoa eta zehatzagoa den informazioa emateko, txosten idatzia egingo du hurrengo fasera igarotzen ez diren ikasleentzat edo moduluren bat gainditu barik igarotzen diren ikasleentzat. Txosten horretan hauek jasoko dira: egindako modu-

2.– En la sesión de evaluación el equipo docente analizará para cada alumno-a, entre otros, los aspectos siguientes:

– Apreciación sobre el grado de consecución de las capacidades enunciadas en los objetivos generales de la Etapa y de los Ámbitos.

– Apreciación sobre el grado de asimilación de los contenidos de los diferentes Ámbitos.

– Aplicación, en su caso, de medidas educativas complementarias.

3.– Igualmente, se analizarán los resultados globales, la situación y los problemas del grupo, y se adoptarán en su caso medidas oportunas para resolverlos. Estos análisis deberán ser tenidos en cuenta en la evaluación interna y externa del centro, que se realicen en cumplimiento del artículo 29 de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la participación, la evaluación y el gobierno de los centros docentes.

4.– De cada una de las sesiones el/la tutor/a levantará acta en la que, además de las circunstancias reglamentarias de tiempo, lugar, presentes y ausentes, deberán constar los acuerdos alcanzados. Además, deberán constar, si el-la interesado-a lo pidiera, las opiniones discrepantes de los acuerdos alcanzados. Estas actas permanecerán en el Centro, bajo la custodia del-la tutor-a, a disposición de los órganos de gobierno del centro y de la Inspección Educativa.

5.– En el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) o en el Reglamento de Régimen Interior (RRI), los centros determinarán el modo en el que participará el alumnado en las sesiones de evaluación y las cuestiones que se tratarán estando presentes, que nunca afectarán a situaciones personales.

*Artículo 8.*– Evaluación final de los módulos.

1.– En la fase I, una vez que la persona adulta haya alcanzado los objetivos de la fase, recibirá la calificación global para promocionar a la fase siguiente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9.1.

2.– Al final de cada cuatrimestre, en las fases II y III, se realizará la evaluación de los módulos, obligatorios y opcionales, que haya cursado durante el mismo, y se les asignarán una calificación de acuerdo a lo que dispone en el artículo 9.2. y 9.3.

3.– En las sesiones de evaluación el equipo docente decidirá la promoción o la permanencia de un/a alumno/a en el/los módulos de un ámbito, de acuerdo a lo que se establece en el artículo 12 de esta Orden así como las medidas de refuerzo educativo, que estime convenientes.

4.– El/la tutor/a, tras la sesión de evaluación de final de cada fase, para dar una información más orientadora y precisa al/la alumno/a elaborará un Informe escrito, para el alumnado que no promocione o para el que promocione sin superar algún módulo. Dicho informe reflejará además de las calificaciones obtenidas en

luetan lortu diren kalifikazioak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aurrerapena eta garapena eta, hala behar izanez gero, proposatzen diren hezkuntza-indargarriko neurriak.

*9. atala.–* Kalifikazioak.

1.– I. fasean, kalifikazio osoarekin, Gai edo Ez Gai, fase hori gainditu den ala ez adieraziko da.

2.– II. fasean, modulu bakoitza ebaluatuko da eta Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango zaie.

3.– III. fasean, lauhilekoaren azken saioan, modulu bakoitza ebaluatuko da eta honako kalifikazioak emango zaizkie: Bikain, Oso Ongi, Ongi, Nahiko edo Gutxiegi.

*10. atala.–* Hirugarren faseko azken saioa.

1.– Saio horretan, Agindu honen 8. atalean jasotakoaren arabera ebaluatzeaz gain, irakasle-ekipoak Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua emateko proposamenak erabakiko ditu, eta irakasle-ekipoak ikaslearen etorkizun akademiko eta profesionalari buruz emango duen aholku orientatzailea entzungo du tutoreak.

2.– Ebaluazio-aktetan ikasleek lortutako kalifikazioak agertuko dira, eta Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua emateko proposamena egingo da.

3.– Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua emateko proposamenaren datu berberak espediente akademikoan adieraziko dira.

*11. atala.–* Dokumentuak.

1.– Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioaren emaitzak, Agindu honetan ezarritakoaren arabera, honako dokumentuetan agertuko dira: Lau hileko ebaluazio-aktetan, fase bakoitzaren amaierako ebaluazio-aktetan, eta ikaslearen espediente akademikoan. Dokumentu horiek Agindu honen I. eta II. Eranskinetan daude, eta ikastetxean denbora mugagabean gordeko dira, idazkariaren ardurapean. Ikastetxea desagertuz gero, lurralde ordezkaritzak neurri egokiak erabiliko ditu handik eramateko eta gordetzeko.

2.– Lau hileko ebaluazio-saioetan, II. eta III. faseetan, tutoreak Ebaluazio-akta beteko du. Bertan agertuko dira talde bakoitzeko ikasle guztiak eta egin dituzten derrigorrezko eta aukerako moduluetako kalifikazioak. Akta horiek irakasle-ekipoak sinatuko ditu, eta ikastetxeko zuzendariak ontzat emango ditu.

3.– Ikaslearen espediente akademikoan, fasean egindako moduluen kalifikazio positiboak sartuko ditu tutoreak, bai eta ikasleari eman dion txosten idatziaren kopia bat ere. III. Kapituluan ezarritako irizpideen arabera, hurrengo modulu edo fasera igarotzen denean, igarotze horren erabakia eta data eta, behar izanez gero, hezkuntza-neurri gehigarriak sartuko dira. Bertan agertuko dira 8.3. eta 15.2. ataletan aipatzen diren ar-

los módulos cursados, el progreso y desarrollo del proceso de enseñanza-aprendizaje y, en su caso, las medidas de refuerzo educativo que se le proponen.

*Artículo 9.–* Calificaciones.

1.– Durante la fase I la superación o no de la fase se consignará con la calificación global de Apto o no Apto.

2.– Durante la fase II se evaluará cada módulo a los que se asignará la calificación de Apto o No apto.

3.– Durante la fase III, en la sesión final del cuatrimestre, se evaluará cada módulo, valorándose cada uno de ellos con la calificación de Sobresaliente, Notable, Bien, Suficiente o Insuficiente.

*Artículo 10.–* Sesión final de la tercera fase.

1.– En esta sesión, el equipo docente, además de evaluar según lo previsto en el artículo 8 de esta Orden, acordará las propuestas de expedición del Título de Graduado en Educación Secundaria y el/la tutor/a oirá al equipo docente en relación con el Consejo Orientador sobre el futuro académico y profesional del/la alumno/a.

2.– En las Actas de Evaluación correspondientes se reflejarán las calificaciones obtenidas y se realizará la propuesta para la expedición del Título de Graduado en Educación Secundaria.

3.– Los mismos datos se consignarán en el caso de propuesta para la expedición del Título de Graduado en Educación Secundaria en el Expediente Académico.

*Artículo 11.–* Documentos.

1.– Los resultados de la evaluación del aprendizaje del alumnado, de acuerdo con lo que se dispone en esta Orden, se consignarán en los siguientes documentos: Actas de evaluación cuatrimestral, Actas de evaluación final de cada fase y Expediente Académico del Alumno, que figuran en los Anexos I y II de esta Orden. Ambos documentos se conservarán indefinidamente en el Centro, bajo la custodia del /la Secretario/a, debiendo adoptarse por la Delegación Territorial correspondiente las medidas adecuadas para su traslado y conservación en caso de supresión del Centro.

2.– En las sesiones de evaluación cuatrimestral, durante las fases II y III, el/la tutor/a cumplimentará el Acta de Evaluación, en la que constarán todos los/las alumnos/as de cada grupo y las calificaciones obtenidas en los módulos, obligatorios y opcionales, que hayan cursado y serán firmadas por el profesorado del equipo docente con el V.ºB.º del/la Directora/-a del Centro.

3.– El/la tutor/a incluirá en el Expediente Académico del/la alumno/a las calificaciones positivas obtenidas en los módulos cursados durante la fase, así como una copia del Informe escrito que le ha entregado al alumno/a. Cuando, de acuerdo a los criterios que se fijan en el Capítulo III, promocione al módulo o fase siguiente, se consignará la decisión de promoción y su fecha y, en su caso, las medidas educativas complementarias. En

loa gainditzeko proposamen arrazoituak eta titulua emateko proposamena.

4.– Aipatutako dokumentuez gain, irakasleek ebaluazio sistematiko eta etengabearen bidez lortutako datu guztiak gordeko dituzte, ikasleak ikasgelan behatzetik datozenak barne, eta dokumentuetan idatziko dituzte, curriculum-proiektuak ezartzen duen moduan eta aldizkakotasunarekin. Periodikotasun hori ezin izango da ebaluazio-saioetarako ezartzen dena baino txikiagoa izan. Datuak ez badira dokumentuetan agertzen, ezarritako moduan, ezin izango dira kontuan hartu erreklamazio posibleak erabakitzeko.

III. KAPITULUA
IKASLEEN PROMOZIOA

*12. atala.–* Promozioaren ezaugarriak HHEn.

1.– Agindu honetan, promozioaz hitz egiten dugunean, arlo bakoitzaren barnean fase batetik hurrengora igarotzea ulertzen dugu, eta fase bakoitzaren barnean modulu batetik, derrigorrezkoa edo aukerakoa, beste batera igarotzea, ikastetxeko Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuan horien arteko mailak ezarri badira.

2.– Arlo baten barruan fase batetik hurrengora igarotzeko, edo modulu batetik maila handiago bateko modulu batera igarotzeko, ikasleak aurreko arloan edo moduluan kalifikazio positiboa lortu beharko du.

3.– Ikasleek fase bat gaindituko dute fase hori osatzen duten arlo eta aukerako moduluetan kalifikazio positiboa lortzen dutenean.

*13. atala.–* Promozioa kalifikazio negatiboarekin.

1.– Ikastetxearen Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuan ezarri diren irizpideen arabera, ikasle batek fase bateko arlo bat gainditu duela adieraz dezake irakasle-ekipoak, nahiz eta moduluren batean ebaluazio txarra izan. Horrelako adierazpen bat egiteko, irakasleen heren bik uste izan behar dute ikasleak arlo horretako gaitasunak garatu dituela eta helburu orokorrak gainditu dituela. Era berean, goragoko modulura igarotzea erabaki dezake, kideen artean adostasun arrazoitua dagoenean.

2.– Ikasle batek fase bateko arlo bat gainditu duela agertzea edo erabakitzea bere espediente akademikoan adieraziko da; behar izanez gero, lehen aipatutako txosten arrazoitua ere sartu egingo da.

3.– Arlo bateko moduluren batean kalifikazio negatiboa daukan ikasle bat promozionatzea ala ez erabaki baino lehen, irakasle-ekipoak ikaslearen iritzia entzun beharko du. Ebaluazio-saioaren aktan argi adieraziko da

el mismo se incluirá las propuestas razonadas de superación de ámbito y de propuesta para Título a que se refieren los artículos 8.3 y 15.2.

4.– Además de los mencionados documentos, el profesorado guardará todos los datos obtenidos mediante la actividad sistemática y permanente de la evaluación, incluidos los procedentes de la observación directa del alumnado en el aula, reflejados documentalmente y de la manera y con la periodicidad que el Proyecto Curricular determine. Esta periodicidad no podrá ser menor que la establecida para las sesiones de evaluación. Los datos de los que no haya constancia documental, en la forma establecida, no podrán ser tenidos en cuenta en la resolución de eventuales reclamaciones.

CAPÍTULO III
PROMOCIÓN DEL ALUMNADO

*Artículo 12.–* Características de la promoción en la EPA.

1.– Se entiende, a efectos de esta Orden, como promoción, dentro de cada ámbito, el paso de una fase a la siguiente y, en una misma fase, el paso de un módulo, obligatorio u opcional, a otro, siempre que en el Proyecto Socioeducativo del centro se hayan establecido niveles entre algunos de ellos.

2.– Para promocionar de una fase a la siguiente, dentro de un ámbito, o para promocionar de un módulo a otro de nivel superior será preciso que el/la alumno/a haya obtenido calificación positiva del ámbito o módulo inferior.

3.– Los/las alumnos/as superarán una fase cuando obtengan calificación positiva en los ámbitos y módulos opcionales que conforman dicha fase.

*Artículo 13.–* Promoción con calificación negativa.

1.– El equipo docente podrá determinar, de acuerdo con los criterios que se hayan determinado en el Proyecto Curricular del centro, que un/a alumno/a ha superado un ámbito correspondiente a una fase aun cuando haya sido evaluado negativamente en alguno de sus módulos, siempre que, por acuerdo razonado de al menos dos tercios de sus miembros, considere que ha desarrollado las capacidades y superado los objetivos generales de dicho ámbito. Así mismo, podrá decidir la promoción al módulo de nivel superior siempre que haya acuerdo razonado del equipo docente.

2.– La constatación o decisión de que un/a alumno/a ha superado un ámbito, dentro de una fase, se consignará en el Expediente Académico del/la Alumno/a, en el que se incluirá, en su caso, el informe razonado antes mencionado.

3.– Antes de que el equipo docente decida si un/a alumno/a con calificación negativa en uno de los módulos de un ámbito promociona o no, deberá ser oído el/la propio/a alumno/a. En el acta de la sesión de eva-

elkarrizketa hori egin dela eta gaiari buruz interesatuak daukan iritzia.

4.– Ikaslea moduluren batean kalifikazio negatiboarekin promozionatzen bada, irakasle-ekipoak hezkuntza-neurri gehigarriak proposatuko dizkio, eta ikaslearen espediente akademikoan adieraziko dira.

*14. atala.*– Fase berean geratzea.

1.– Arlo baten barruan, hurrengo fasera igarotzen ez diren ikasleek kalifikazio negatiboa eskuratu duten arlo horretako moduluak egin beharko dituzte. Era berean, kalifikazio negatiboa jaso eta hurrengo mailara igaro ez direnean aurreko mailako moduluak berriro egin behar izango dituzte. Kasu horretan, ez da espedienteko lauki hori beteko.

2.– Arlo bateko fase berean geratzeak ez du esan nahi beste arlo batzuetan hurrengo fasera igaro ez daitekeenik.

*15. atala.*– Ebaluazio negatiboa jaso duten moduluen helburuak gainditzea.

1.– Ebaluazioa etengabea denez gero, modulu batek balorazio positiboa jasotzeak arlo bereko moduluen ebaluazio negatiboak gainditzea dakar, ikastetxearen Gizartearentzako Hezkuntza Proiektuaren arabera aurreko mailakoak direnean.

2.– Ikasleak ez badu ebaluazio negatiboa jaso duen modulua berriro egiten, irakasle-ekipoak ebaluazio-saioan hartu dituen hezkuntza-neurri gehigarrien arabera zehaztuko da modulu horretako helburuak lortu dituela.

## IV. KAPITULUA
## EGIAZTATZEA ETA TITULAZIOA

*16. atala.*– Titulazioa.

1.– III. faseko arlo eta modulu guztiak gainditu dituzten ikasleek, horien ordu-kopuru osoa eskatzen direnen berdina bada gutxienez, Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua jasotzeko eskubidea izango dute. Horren bidez Batxilergora eta berariazko Lanbide Heziketako erdi-mailako prestakuntza-zikloetara sartzeko aukera izango dute.

2.– Ohiz kanpo, modulu batean ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleei Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua ematea proposa dezake irakasle-ekipoak, ekipo horren gehiengoak, inoiz ez heren bi baino gutxiago, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona helduen oinarrizko prestakuntzako curriculuma ezartzen duen 1998ko ekainaren 19ko Aginduaren 3. atalean aipatutako gaitasunak eskuratu dituztela uste badute. Modulu batean ebaluazio txarra jaso duen ikasleari titulua

luación deberá quedar constancia de haberse realizado esta audiencia y de la opinión del/la interesado/a al respecto.

4.– Siempre que un/a alumno/a promocione con calificación negativa en algún módulo, el equipo docente le propondrá medidas de refuerzo educativo, lo que se reflejará en el Expediente Académico del/la Alumno/a.

*Artículo 14.*– Permanencia en la misma fase.

1.– Los/las alumnos/as que no promocionen a la fase siguiente, dentro de un ámbito, deberán cursar los módulos del mismo en los que hayan obtenido calificación negativa. Así mismo deberán volver a cursar los módulos de nivel inferior, cuando haya obtenido calificación negativa y no hayan promocionado al nivel superior. En este caso, no se cumplimentará la correspondiente casilla del expediente.

2.– La permanencia en la misma fase, en un ámbito, no impide la promoción a la fase siguiente en otros ámbitos.

*Artículo 15.*– Superación de los objetivos de módulos evaluados negativamente.

1.– Dado el carácter continuo de la evaluación, la valoración positiva de un módulo implica la superación de las evaluaciones negativas de aquellos módulos del mismo ámbito, que, de acuerdo al Proyecto Socioeducativo del Centro, constituyan un nivel inferior.

2.– En el caso de que el módulo evaluado negativamente no sea cursado ya por el-la alumno-a, la determinación de que ha conseguido los objetivos correspondientes al mismo se realizará en función de las medidas educativas complementarias que el equipo docente haya adoptado en la sesión de evaluación.

## CAPÍTULO IV
## ACREDITACIÓN Y TITULACIÓN

*Artículo 16.*– Titulación.

1.– El alumnado que haya superado todos los ámbitos y los módulos opcionales de la fase III, cuyo cómputo horario total sea al menos igual al exigido, tendrá derecho a recibir el título de Graduado en Educación Secundaria, que le facultará para acceder al Bachillerato y los Ciclos Formativos de grado medio de la Formación Profesional específica.

2.– De manera excepcional, el equipo docente podrá proponer para la expedición del título de Graduado en Educación Secundaria a aquellos/as alumnos/as que, aun habiendo sido evaluados negativamente en un módulo, a juicio de una mayoría no inferior a dos tercios, hayan alcanzado las capacidades a que se refiere el artículo 3 de la Orden de 19 de junio de 1998 por la que se establece el currículo de formación básica de personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vas-

emateko proposamenaren erabakiari txosten idatzi bat erantsiko zaio, irakasle-ekipoaren heren biak onartuta.

3.– Titulua emateko proposamena ikastetxeko zuzendariak aurkeztuko du, arauz zehazten den moduan.

*17. atala.–* Egiaztatzea.

1.– H.H.E. egiten duten ikasle guztiek, behar dutenean, egindako ikasketak eta modulu eta arlo guztietan lortutako kalifikazioak adierazten dituen egiaztagiri bat eska dezakete. Era berean, H.H.E.ko ikastetxe batean titulua eskuratu gabe ikasketak amaitutzat jotzen dituztenei holako egiaztagiri bat emango zaie.

2.– Egiaztagiri hori, 1992ko urriaren 30eko Aginduaren 11.4. atalaren arabera, idazkariak egingo du, zuzendariak ontzat emanda. Egiaztagiri horren berri emango da espediente akademikoan.

V. KAPITULUA
ESKOLA EMAITZAREN EBALUAZIOAREN BERMEAK, OBJETIBOTASUN OSOKO IRIZPIDEEN ARABERA

*18. atala.–* Publizitatea.

1.– Antolamendu eta Jarduera Araudiak (AJA) eta Barne Araudiak (BA), ikastetxe publiko eta pribatuetan, hurrenez hurren, ikasleek ikastetxeko curriculum-proiektua ezagutzen dutela bermatu beharko dute, eta interesatu guztiek Agindu honen 3.2. atalak aipatzen dituen aldeak ezagutzen dituztela bermatuko dute.

2.– Era berean, arlo edo moduluaren ekipoek eta irakasle guztiek helburuak, arlo eta modulu bakoitzean ebaluazio positiboa lortzeko gutxienez eska daitezkeen edukiak eta kalifikazio-irizpideak ezagutarazten dituztela bermatu beharko dute.

*19. atala.–* Ikasleentzako informazioa.

1.– H.H.E.ko ikastetxeek ikasleekin komunikatzeko bide erraz eta eraginkorrak ezarri behar dituzte, ikasle horiek irakaskuntza eta ikaskuntzarekin, eta, batez ere, eskola-emaitzekin, lotutako ekintzei buruzko informazio guztia eskuratzeko aukera izan dezaten.

2.– Tutorearen betebeharrak alde batera utzita, irakasleek ezin diote ezetzik esan ikasleei, banaka, aipatutako gaiei buruz eskatzen dieten informazio guztia emateari. Horretarako, A.J.A.k edo Barne Araudiak ezarriko dituzte beharrezko neurriak.

3.– Lauhilekoaren azkenean gutxienez, ikasleek informazio idatzia jasoko dute egindako moduluen kalifikazioei buruz, eta lauhileko ebaluazio-saioetan irakasle-ekipoak adierazitako alderik garrantzitsuenei buruz. Ikastetxeko zuzendaritzak beharrezko neurriak erabili-

co. La decisión de proponer para la expedición del título a alumnado evaluado negativamente en un módulo irá acompañada de un informe escrito aprobado por la misma mayoría de dos tercios del profesorado.

3.– La propuesta para la expedición de título será presentada por el/la Director/a del centro en la forma que reglamentariamente se determine.

*Artículo 17.–* Acreditación.

1.– Todos/as los/as alumnos/as que cursen la E.P.A. podrán solicitar, siempre que lo requieran, una acreditación en la que consten los estudios cursados y las calificaciones obtenidas en los diversos módulos y ámbitos. Así mismo, se les entregará a quienes den por finalizados sus estudios en un centro de E.P.A. sin haber obtenido el título correspondiente.

2.– Esta acreditación, de acuerdo al artículo 11.4 de la Orden de 30 de octubre de 1992, será extendida por el/la Secretario/a con el V.ºB.º del/la Directora/a. De ella quedará constancia en el expediente académico.

CAPÍTULO V
GARANTÍAS DE EVALUACIÓN DEL RENDIMIENTO ACADÉMICO CONFORME A CRITERIOS DE PLENA OBJETIVIDAD

*Artículo 18.–* Publicidad.

1.– El Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) y el Reglamento de Régimen Interno (RRI), en los Centros Públicos y Privados respectivamente, deberán garantizar el acceso del alumnado al Proyecto Curricular del Centro, asegurando el conocimiento por todos/as los/las interesados/as de los aspectos a que se refiere el artículo 3.2 de esta Orden.

2.– Igualmente deberán garantizar la publicidad, por parte de los equipos del ámbito o módulo y por parte de todo el profesorado, de los objetivos y contenidos mínimos exigibles para obtener evaluación positiva en cada uno de los ámbitos y módulos, así como los criterios de calificación.

*Artículo 19.–* Información al alumnado.

1.– Los Centros de E.P.A. deben establecer medios de comunicación fluidos y estables con el alumnado de manera que tengan acceso a toda la información relacionada con las actividades de enseñanza y aprendizaje y, especialmente, con el rendimiento académico.

2.– Sin perjuicio de las obligaciones del/la tutor/a, ningún profesor/a podrá negarse a dar individualmente a los/las alumnos/as toda la información que se solicite sobre los aspectos mencionados. A estos efectos el ROF o el RRI establecerán las medidas necesarias.

3.– Los/as alumnos/as, al menos al final de cada cuatrimestre, recibirán información por escrito de las calificaciones de los módulos cursados y aspectos más importantes señalados por el equipo docente en las sesiones de evaluación cuatrimestral. La dirección del cen-

ko ditu ikasleek informazio hori jasotzen dutela ziurtatzeko.

*20. atala.*– Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea.

1.– Ikasleek zuzendutako lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute, lan horiek euren errendimentuaren ebaluazioan eragina izango badute. Zuzenketa hori ez da kalifikazio koalitatiboa edo koantitatiboa soila izango; egindako hutsen edo akatsen azalpena edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua eduki beharko du.

2.– Era berean, alegazioak aurkeztu eta berrikuspena eskatzeko aukera izango dute. A.J.A.k edo Barne Araudiak ezarriko dute prozedura, epeak eta berrikuspena egiteko baldintzak zehaztuz. Kontuan hartuko da irakasleentzat izaera loteslea daukatela curriculum ofizialak, ikastetxeko curriculum-proiektuak, ikasgelako programazioek eta publiko egindako kalifikazio-irizpideek.

*21. atala.*– Erreklamazioen prozedura amaierako ebaluazioetan.

1.– A.J.A.k edo Barne Araudiak barneko erreklamazio-prozedura bat ezarriko dute, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuan jasotakoarekin bat.

2.– Erreklamazioak ikastetxean erabaki ondoren, ikasleak edo irakasleak ez badaude ados erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango dute Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan, zazpi eguneko epean. Erreklamazio-idazkia ikastetxeko zuzendaritzaren bitartez aurkeztuko da.

3.– Zuzendariak Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzara bidaliko ditu erreklamazio-idazkia eta erreklamaziogileak aurkeztutako agiriak, bai eta egoki deritzon agiri guztiak ere, zazpi eguneko epean.

